

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2017ko UZTAILAREN 6ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2017ko uztailaren 6an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
Ander Leon Nanclares
Angel Serrano Martinez
Aritz Sarria Saraqueta


EZ DA BERTARATZEN: Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
 - **2017ko ekainaren 1ean egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 1 de junio de 2017.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Tolosaldea Garatzen-i 2017 urteko bigarren ekarpena onestea, hala bada./Aprobación de la 2ªaportación económica correspondiente al ejercicio 2017 a Tolosaldea Garatzen.**
- 4. 2016 urteko kontu orokorraren onespena /Aprobación de la Cuenta General del Presupuesto 2016.**
- 5. Erroitz Baltzu Mugatuak, 2016 urterako eginiko diru-laguntza eskaera, hala bada./ Solicitud de ayuda económica para el ejercicio 2016, realizada por Erroitz Baltzu Mugatuak.**
- 6. Gazte lokaleko kideak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada/Estudio de la petición realizada por Gazte lokaleko kideak.**
- 7. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2017eko 3. Eta 4. Hiruhilabeteko ekarpenak burutzea, hala bada./Aportación económica correspondiente al 3. y 4. Trimestre del 2017 a Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea.**
- 8. 2016-2017 ikasturterako Larraulgo herritarrei euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautuko dituzten oinarriak onartzea, hala badagokio./ Aprobación de las bases de regulación de las ayudas**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- económicas a los habitantes de Larraul por cursos de euskara, curso escolar 2016/2017.
9. Euskal Autonomia erkidegoko administrazioaren eta Larraulgo udalaren arteko lankidetzeta hitzarmen berriari atxikitzea, informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektrikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko/Adhesión al nuevo convenio de colaboración entre la administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Ayuntamiento de Larraul para la prestación mutua de servicios de información, administración y gestión electrónica.
 10. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
 11. Beste batzuk/Otros.
 12. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2017 urteko ekainaren 1eko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

11/2017 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 20koa, Cristian Pizarro zinegotziari ezkontza zibila ospatzeko ahalmena ematea, ebazten duena.


12/2017 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 20koa, Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren kitapena onestea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

TOLOSALDEA GARATZEI 2017 URTEKO BIGARREN EKARPENA ONESTE, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek igorritako idatzia, non 2016ko abenduak 12ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2017 urterako Tolosaldea Garatzen-i egin beharreko ekarpena burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 3.839,00 euro direlarik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Aipaturiko diru kopuruaren ekarpena bi zatitan burutu dadin proposatzen dela, ekarpen bakoitzean % 50a egingo delarik: Lehena, martxoaren 30ean eta bigarrena, irailaren 30ean.

Ikusirik, 2017ko martxoaren 9an egindako Udalbatzarrean, Tolosaldea Garatzen 3.839,00 eurotako ekarpenaren gastua onestu zela, lehen ordainketa martxoaren 30ean egiteko onespena eman zitzaionlarik.

Ikusirik, aipaturiko ekarpenaren bigarren zatia irailaren 30erako egin behar dela.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzen-i, irailaren 30erako, 2017urteko ekarpenaren bigarren zatiaren ordainketa burutzea onestea, hau da, 1.919,50 eurotako diru kopurua.

BIGARRENA: 1.919,50 eurotako gastua onestea, ordainketa 2017ko udal aurrekontuetako 422.430.00.01 partidaren kargura egingo delarik.

LAUGARREN PUNTUA

2016 URTEKO KONTU OROKORRAREN ONESPENA

Ikusirik 2016 ekitaldiko Larraulgo Udaleko Kontu Orokorra 15 lanegunez jende aurrean jarri dela, bere iragarkia Udaleko Iragarki Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, edonork aztertu eta egoki zituen alegazioak aurkeztu zitzen.

Ikusirik 2017ko maiatzaren 18an argitaratu dela iragarkia GAOn eta jendaurreko epea ireki dela 2016ko maiatzaren 19tik ekainaren 8ra bitartean, biak barne, ez delarik bere aurka inolako iradokizun zein erreklamaziorik aurkeztu.


Ikusirik Udaleko Behin behineko Idazkariak Kontu Orokorrari buruz egin duen txostenean dioena.

Gaia aztertutik, bertaratuek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA.- Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Ogasunen Aurrekontuari buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorritik Larraulgo Udaleko 2016 ekitaldiko Kontu Orokorrari behin betiko onspena ematea.

BIGARRENA.- Akordio honen berri Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BOSTGARREN PUNTUA

ERROITZ BALTZU MUGATUAK, 2017 URTERAKO EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik 2017 ekitaldirako Erroitz Baltzu mugatuak, aurkeztu duela “AIURRI, Beterri-Aiztondoko hamaboskaria”-k egitasmoaren aurrekontua, bertan, Larraulgo Udalari dagokion ekarpena agertzen da, hau da, 750,00 eurotako ordainketa egitea eskatzen da.

Ikusirik Larraulgo Udalak, 2017 urteko aurrekontuetan, Erroitz Baltzu mugatuari Aiurri Beterri-Aiztondoko hamaboskaria argitaratzeko 750 eurotako partida bat aurrikusi duela.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- “AIURRI, Beterri-Aiztondoko hamaboskaria”-ari 2017 ekitaldirako 750,00 eurotako diru-laguntza onartzea eta ordainketa burutu dadila agintzea. Urte bukaeran, Erroitz Baltzu mugatuak, dagokion kitapena aurkeztu beharko duelarik.

BIGARRENA.- 750,00 eurotako gastua onestea, 2017 urterako udal aurrekontuetako 422.334.00.01 partidaren kargura.

HIRUGARRENA.- Erroitz baltzu mugatuari erabaki honen berri ematea.

SEIGARREN PUNTUA

GAZTE LOKALEKO KIDEAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA


Ikusirik Gazte lokaleko kideak eginiko eskaera, non orain duten gela txikia gelditu zaiela eta Kultur etxeko haurzaindegi bezala erabiltzen zen gela erabiltzeko baimena eskaera egiten duten.

Ikusirik Gazte lokaleko kideak txosten bat eta dituzten arauen kopia bat aurkeztu dutela Udaletxe honetan.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Cristian Pizarro zinegotziaren abstentzioarekin, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Kultur etxeko behe solairuko gela erabiltzeko baimena ematea (bere garaian haurreskola modura erabiltzen zena).



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Gazte lokaleko kideei jakinaraztea, udaletxeak aipaturiko gela beharko balu, Udalak gela erabiltzeko eskubidea lehenestuko dela.

HIRUGARRENA: Gazte lokaleko kideei jakinaraztea udalak gazte lokaleko kideak aurkezturiko arauak aztertuko dituela eta egokiak direla iruditu ezker, ondoren onartuko dituela.

LAUGARRENA: Gazte lokaleko kideei erabaki hauen berri ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2017KO 3. ETA 4. HIRUHILABETEKO EKARPENAK BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2017ko ekainaren 27an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2017 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 16.000,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Larraulgo udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

- Gizarte zerbitzuak: 10.000,00 euro
- Kultura: 6.000,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela 2017 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partidetan.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE


LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 16.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2017 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko. 2017 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partiden kargura. Kontzeptu hauetan banatuta:

- Gizarte zerbitzuak: 10.000,00 euro
- Kultura: 6.000,00 euro

BIGARRENA.- 16.000,00 eurotako gastua onartzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

2016-2017 IKASTURTERAKO LARRAULGO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIAK ONARTZEA, HALA BADA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Alkate-Lehendakari andreak eskaturik Udaleko Idazkari-Kontuhartzaile andreak 2016-2017 ikasterterako Larraulgo biztanleentzat eta bertan jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrien zirriborroa prestatu du.

Zirriborroa banatu ondoren eta gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- 2016-2017 ikasterterako Larraulgo biztanleentzat eta Larraulgo udalerrian jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzea.

BIGARRENGOA.- Diru-laguntza eskaera egiteko epean uztailaren 7tik 21era zabalduko da (biak barne).

HIRUGARRENGOA.- Aipaturiko deialdia jendaurrean jartzea.


BEDERATZIGARREN PUNTUA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ETA LARRAULGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMEN BERRIARI ATXIKITZEA, INFORMAZIOAREN, ADMINISTRAZIOAREN ETA KUDEAKETA ELEKTRIKOAREN ESPARRUKO ZERBITZUAK ELKARRI EMATEKO

Ikusirik, 2016ko uztailaren 7an egindako Udalbatzarrean, Larraulgo Udalaren eta Euskal autonomia erkidegoko administrazioaren arteko Lankidetzeta-hitzarmena onestu zela, informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoen esparruko zerbitzuak elkarri emateko. 2013ko urriaren 17an argitaratu zen eredia erabilia.

Ikusirik 2017ko maiatzaren 10ean, 50/2017 ebazpena, apirilaren 12koa, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dena. Ebazpen hori Gobernuko eta Parlamentuarekiko Harremanetarako Idazkaritzako zuzendariarena da, eta xedatzen du argitara eman dadila Euskal Autonomia Erkidegoko udalekin sinatuko den lankidetzeta-hitzarmenaren eredia, informazio, administrazio eta kudeaketa elektronikoko zerbitzuak elkarri emateko.

Hitzarmen honen xedea da baldintza eta irizpide orokorrak finkatzea: alde batetik, sinatzaileek ematen dituzten zerbitzu elektronikoak guztiek aprobetxa ditzaten, eta bestetik, informazioa elkarri truka diezaioten. Zeregin horiek deskribatu dira datuak transmititzeko eranskinean eta jakinarazpen eta komunikazio elektronikoen zerbitzuei buruzko eranskinean.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gainera, 2017ko martxoaren 24an Estatuko Administrazio Orokorrak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sinatutako lankidetza-hitzarmen berriaren sinatzaileek ematen dituzten administrazio elektronikoaren oinarritzko irtenbide teknologikoak baliatu ahal izango dituzte toki-erakundeek, hamabigarren klausulan eta III. Eranskinean xedatutakoaren arabera (Eranskin hori 2017ko martxoaren 24an Estatuko Administrazio Orokorrarekin administrazio elektronikoaren esparruko oinarritzko irtenbideak elkarri emateko sinatutako lankidetza-hitzarmenari atxikitzeko protokoloa da).

Beraz, aurreko guztia kontutan harturik, hitzarmen berri honetara atxiki gaitezela eskatzen digute.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Ondorengo lankidetza-hitzarmenera atxikitzea, hau da, 2017ko maiatzaren 10ean, 50/2017 ebazpena, apirilaren 12koa, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dena. Ebazpen hori Gobernuko eta Parlamentuarekiko Harremanetarako Idazkaritzako zuzendariarena da, eta xedatzen du argitara eman dadila Euskal Autonomia Erkidegoko udalekin sinatuko den lankidetza-hitzarmenaren eredia, informazio, administrazio eta kudeaketa elektronikoko zerbitzuak elkarri emateko.


BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria den Aneli Urbieta andrea ahalmentzea aipaturiko lankidetza-hitzarmen honi atxikitzeko. Atxikitze-protokoloa sinatuaz.

HIRUGARRENA: Sinatutako atxikitze-protokoloa Gipuzkoako Foru Aldundira eta Estatuko Administrazio Orokorrari bidaltzea.

HAMARGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

CONTENEDORES SARASOLA	140,00
FERRETERIA BARBE	417,09
GOIKOETXEA ALBISU	30,80
ZU ETA BIOK	707,81
TOLOMENDI	152,50
EBA ERKIZIA BRION	700,26
ASTEASUKO UDALA	700,00
HARRESPIL	181,50
KIROLZER	62,25
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	5.099,37



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	8,21
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	866,29
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	855,96
AITZOL	56,84
TOLOMENDI	152,50
VAIGAS	119,79
AITZOL	73,08
CORREOS	0,64
LEYCOLAN	1.028,50
IZFE	1.950,28
LASURTEGUI	108,90
EBA ERKIZIA	653,89
ZU ETA BIOK	910,04
FERRETERIA BARBE	111,91
IBERDROLA	65,47
IBERDROLA	132,19
IBERDROLA	28,89
IBERDROLA	167,46
IBERDROLA	155,87
IBERDROLA	199,90
IBERDROLA	27,79
IBERDROLA	179,32
NATURGAS ENERGIA	23,44
NATURGAS ENERGIA	54,52
MOVISTAR	48,97
MOVISTAR	18,15
MOVISTAR	133,53
MOVISTAR	18,58
MOVISTAR	74,51


Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **16.417,00** eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

11.1. 2017 URTEKO KIROL ASTEKO GASTUEN KITAPENA, HALA BADA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Udalbatza honek, aho batez, 2017 urteko kirol asteko gastuen kitapena puntua, bilkura honetan aztertzea erabakitzen du.

Ikusirik 2017ko maiatzaren 15etik maiatzaren 21era Larraulgo Kirol astea egin dela, bertan hainbat gastu egon direlarik. Ondorengoak izanik:

ORDAINKETAK

Kartela	175,45
Trofeoak	232,89
Ostatua	16,00

Ekintzak

-Merendola(Duatloia)	34,34
-Hitzaldia (Kirola&Elikadura)	150,00
-Fit-Camp	43,68
-Esgrima	165,00
-Futbola(umeak)	60,00
-Futbola(helduak)	100,00

GUZTIRA **977,36**

DIRU SARRERAK

-Udalaren ekarpena 1.000,00 euro

GUZTIRA: **1.000,00 euro**

ORDAINKETAK: **-977,36euro**

BALANTZEA: **22,64 euro**


Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA.- 2017ko Kirol asteko gastuen kitapena onestea.

HAMABIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

12.1. LARRAULGO HERRITARRAK UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOAREN AZTERKETA, HALA BADA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Udalbatza honek, aho batez, Larraulgo Herritarrak udal taldeak aurkeztutako mozioaren puntua, bilkura honetan aztertzea erabakitzen du.

Ondorengo dio:

"LARRAULGO HERRITARRAK Udal taldeak aurkeztutako mozioa

A raíz de los hechos ocurridos en la madrugada del pasado 15 de octubre en la localidad de Altsasu, en los que resultaron heridos dos guardias civiles y sus parejas, así como las consecuencias derivadas de los mismos, el ayuntamiento de Larraul mostró su desacuerdo con la calificación penal de los hechos como delito de terrorismo, lo que podría acarrear penas desproporcionadas para los inculpados.

Las principales instituciones de Navarra, el Parlamento y el Gobierno Foral y la propia Audiencia Provincial de Navarra han considerado que no cabe concluir que los hechos denunciados puedan considerarse susceptibles de ser calificados como acto de terrorismo de acuerdo al artículo 573 del Código Penal y que en consecuencia deben ser instruidos y juzgados en Navarra,


Recientemente, también un total de 74 diputados/as y senadores/as de las Cortes Generales, 51 parlamentarios/as del Parlamento Europeo y 83 alcaldes y alcaldesas de Navarra y de la CAPV (entre ellos la de Larraul) han manifestado su preocupación por este caso.

El pasado 4 de julio se conoció el escrito de la acusación de la Fiscalía en el que solicita la imposición de una pena de 62 años y 6 meses para una de las personas encausadas, 50 años para cada una de otras seis y 12 años y 6 meses para una octava persona. Una verdadera desproporción que no debería asumir un Estado de Derecho.

Por todo ello el Pleno del Ayuntamiento de Larraul aprueba la siguiente

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

- 1. El Ayuntamiento de Larraul manifiesta su más rotunda discrepancia con la solicitud de penas que recoge el escrito de acusación de la Fiscalía y manifiesta una gran preocupación por el devenir de los acontecimientos, habiendo constatado que este caso ha llegado a un nivel de desproporción y sinrazón inaceptables.*
- 2. El Ayuntamiento de Larraul reitera su firme compromiso con la convivencia, la justicia y el respeto a los Derechos Humanos de todas las personas como principios propios de un Estado democrático y de Derecho y manifiesta que la desproporción que rodea a este caso se enmarca en la dirección contraria a la normalidad y a la convivencia democrática.*



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

3. *El Ayuntamiento de Larraul reitera su apoyo a la motivación de la Audiencia Provincial de Navarra respecto a la no concurrencia de indicios para que los hechos sean calificados como terrorismo y por tanto se reafirma en la que competencia para instruir y juzgar los hechos sucedidos en Altsasu el pasado 15 de octubre debiera corresponder a los juzgados de Pamplona.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez Larraulgo Herritarrak udal taldeak aurkezturiko mozioa bere osotasunean onesten du.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.15 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA